

## Oreka



Joxerra Aizpurua  
Sarasola  
INDUSTRIA INGENIARIA

**H**ogeita hamar urte igaro dira Paris eta Londres lehen aldiz bisitatu nituenetik. Automobileren joan ginen eta Mantxako kanala ferryan zeharkatu genuen; aipatu hiriburuetan automobileren ibiltzeko ez genuen arazo berezirik izan.

Aurten antzeko ibilbidea egin dugu, baina ez gara hiriburuetan automobileren sartzera ausartu. Londresen kasuan, Folkestone hirian hartu genuen ostatu, 120 km-ra, eta Londresera hurbiltzeko 50 minutu behar zituen tren azkarra erabili genuen. Trenak bide zahar berritutik egiten du bidea, eta lau geltokitan geratzen da. Trenbide beretik beste tren batzuk ibiltzen dira mantsoago eta geltoki gehiagorekin. Tarifen sistema ere deigarri egin zitzaidan, ez baitira berdin ordaintzen goizeko 8etako eta 10etako trenak. Ordu puntetan, beti garestiago.

Tren azkarra zen hartu genuena, agian ez oso azkarra, baina nahikoa. Ez dakit zein izango zen bere garaian egindako inbertsioa, baina Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian AHTren inguruan egin eta egiten ari direnekin alderatuz, oso apala izango zelakoan nago.

Jakin badakit estrapolazioak matematiketan ongi funtzionatzen duela eta ez hain ongi hortik at, baina estrapolazio egokituak mundu osoan eta bizitzako egoera askotan erabiltzen ditugu. Hortaz, Ingalaterrakoa Euskal Herrira eta inguru-

ra ekartzen saiatu nintzen; Irundik Madrilerako bidea, trenbide zaharra berrituz gero, bi ordu eta erdian edo hirutan egiterik izango genukeen eta Hendaiatik Parisera lau ordu pasatsutan, eta hori guztia eraikitzeke ez zait iruditzen dozena erdi bat urte baino gehiago behar izango genukeenik. Beraz, hamarkada honetan hasita jada martxan izango genituzkeen bi trenbide azkar samarrak. Abiaduraren eta inbertsioen arteko oreka mantenduko genuke eta datorren hamarkadan Hyperloop bezalako sistema teknologikoen bidez beste jauzi bat egiteko eran izango ginateteke, betiere egin beharreko inbertsioen eta lortutako emaitzen arteko oreka mantenduz.

Euskal Herrian eraikitzen ari garen AHT-k hamabost edo hogeitaz urte beharko ditu abian jartzeko, Madrilek eta Parisek orain bezain urrun jarraituko dute eta egindako esfortzuaren eta lortutako emaitzaren artean ez da ratio onik izango. Ildo horretatik doa Europatik uztailean bidalitako abisua, nire ustez, baina abisu hori gabe ere, gehiegi luzatzen eta esfortzu ekonomiko handiegia eskatzen ari den azpiegitura baten aurrean gaudela ezin uka.

Bidaiatzen segitu nahi dut eta askotan helburuetara heltzeko azkartasuna behar dut eta trenagustukoa dut. Baina lan publikoetan ere beste alor askotan eskatzen dugun didaktika erakutsi behar dugu. ■

## Borroka da bidea



Itziar Bardaji  
Goikoetxea  
NUP-KO IRAKASLEA

**G**utxitan –edo inoiz ez– bizi izan dut horrelakorik. Kapitalismoari aurkariak, erlazioak eraldatu nahi dituztenak, iraultza ezinezkotzat jotzen ez duen gutxiengoak, legez kanpoko dantzariak, garaipen txiki eta handi bat ospatzen. Une batzuk lehenago lo falta islatzen zuten aurpegiatan, neke guztiak ahazturik, irribarre sakonak eta malako batzuk ere bai. Beren buruei tipo gogorraren irudia inposatzen dietenak ere besarkada hunkitu eta alaietan murgildurik. Ospakizuna auzokideekin batera. Iruñeko Maravillas Gaztetxearen garaipena, behin-behinekoa izan daiteken arren, garaipen.

Noski, Nafarroako Gobernuan batzuk ala besteak egoteak eragina izan du. Noski, inda-

rez, abuztuan eta epaiketa baino lehen eginiko desalojoak zauritu gutxiago utzi ditu aurretiko gobernuen formekin alderatuz.

Noski, aldaketaren indarrek ez dute instituziotik gaztetxe hau ez martxan jarri, ez babes-tu. Ezinezkoa baita. Borondateak borondate, ez da borondate kontua. Rozalejo Jauregia okupazio bidez bihurtu zen Gaztetxe: aske-gune. Eta eskuinak eraso, Maravillas Gaztetxearen defentsa kalean eman zen, bai kordio polizialean, bai gaztetxe barruan. Hau gabe ezin da Gobernuaren atzera pausoa ulertu. Bake arraroaren denbora hauetan ere, borroka da bidea. ■